

IÑAKI ZAPIAIN LANKIDEAREN ATXILOKETA DELA-ETA

Gure lankide Iñaki Zapiainen eta 18/98 sumarioko auzipetuen beste atxiloketak gogor salatu nahi ditugu. Beste behin, Estatu espainolak Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten dutenen kontra jo du. Iñaki Euskal Herrian komunikabide propioak izateko lan egiteagatik dago espetxean, 18/98 prozesuan zigortu dituzten asko bezala. Epaiketa horretan, argi eta garbi geratu zen auzipetuen gutxieneko eskubideak ez zirela errespetatu. Horregatik, bai Iñaki bai beste guztiak berehala aske uzteko exijitzen dugu. Horrekin batera, gure elkartasuna adierazi nahi diegu atxilotuei eta haien senideei.

GARA-KO ENPRESA BATZORDEAK ETA LANGILEAK

Euskal Herrian, 2009ko apirilaren 30ean